



KOLONAREN ZATI BAT ERAUZTEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA RESECCIÓN SEGMENTARIA DE COLON

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data:

B. INFORMAZIOA:

Jakinarazi didate prozedura horren bidez, hestearen zati gaixoa erauzi nahi didatela, zati horrek sortzen dizkidan sintomak kentzeko (odol-galera, infekzioa, zulatzea, buxada, fistula, gaiztotzeko aukera). Ondoren, josi eta digestio hodia behar bezala jarriko didate. Jakinarazi didate, halaber, ebakuntzan, abdomenera sartzeko bi aukera daudela: bide laparoskopikoa eta bide irekia.

Askotan, ebakuntza egin bitartean, aurretik egindako diagnosiarekin bat ez datozen zenbait aurkikuntza egin daitezke. Ebakuntzan zer aurkitzen den, arazoa nolakoa den eta zer gai tekniko dauden, teknika edo maniobra kirurgiko bat edo beste erabiliko da; beraz, baliteke hauek egitea: erraien erauzketa, erabatekoa edo partziala, deribazio edo «zubi» digestiboak, estoma digestibo edo urologikoak («poltsak») jartzea. Aldaketa horiek oso garrantzitsuak izango balira, senide edo legezko ordezkariari horren berri eman eta ebakuntzarekin aurrera jarraitzeko baimena eskatuko zaie.

Medikuak ohartarazi dit, ebakuntza hau egiteko, anestesia eman behar didatela, eta ebakuntzan bertan nahiz ebakuntzaren ondoren odola eta/edo hemoderibatuak erabiltzea beharrezkoa izan daitekeela. Horri lotutako arazorik dudan jakinarazi behar diot medikuari. Anestesiaren arriskuez anestesiako zerbitzukoek emango didate.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Jakin badakit teknika egokia aukeratu eta behar bezala erabili arren, konplikazio hauek sor daitezkeela:

Larriak ez direnak eta maiz gertatzen direnak: zauri kirurgikoaren infekzioa eta odol-galera; flebitisa; gernu-debeku akutua (horrelakoetan, baliteke maskuria zundatu behar izatea); beherakoa; sabela maizago ustea; hesteetako erritmoa berreskuratzea luzatzea (horrelakoetan, erabateko dieta eta serum bidezko tratamenduarekin jarraitu behar da, denbora luzean) eta mina ebakuntza egindako eremuan.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B. INFORMACIÓN:

He sido informado que mediante este procedimiento se pretende extirpar la parte del intestino que está enfermo para solucionar sus síntomas (sangrado, infección, perforación, obstrucción, fístula, posibilidad de malignización...) para posteriormente suturarlo y restaurar la continuidad del tubo digestivo. También he sido informado que para llevar a cabo la intervención se puede acceder al interior del abdomen bien por vía laparoscópica o bien por vía abierta.

En muchas ocasiones los hallazgos encontrados durante la intervención quirúrgica pueden ser diferentes del diagnóstico realizado previamente. Las técnicas o maniobras quirúrgicas dependerán tanto de los hallazgos durante la intervención y del problema que se presente, como de cuestiones técnicas, por lo que puede salir del quirófano con: extirpaciones totales o parciales de vísceras, derivaciones o "puentes" digestivos, confección de estomas digestivos o urológicos ("bolsas"). Cuando estas modificaciones sean de consideración se informará y solicitará consentimiento a la familia o representante.

El médico me ha advertido que el procedimiento requiere la administración de anestesia y que es posible que durante o después de la intervención sea necesaria la utilización de sangre y/o hemoderivados, es necesario decirle a su médico si tiene algún problema al respecto. De sus riesgos me informará el servicio de anestesia.

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

Comprendo que a pesar de la adecuada elección de la técnica y de su correcta realización pueden presentarse complicaciones:

Poco graves y frecuentes: Infección y sangrado de herida quirúrgica, flebitis, retención aguda de orina que puede precisar sondaje de la vejiga, diarrea, aumento del número de deposiciones, retraso en la recuperación del ritmo intestinal que puede requerir dieta absoluta y tratamiento prolongado con sueros, y dolor en la zona de la operación.

Maiz gertatzen ez direnak eta larriak direnak:

- zauri kirurgikoa irekitzea; infekzioa sabel barruan; hesteetako fistula, jostura ondo orbaindu ez delako (zenbaitetan, ebakuntza berriz egin behar da uzki artifiziala jartzeko; baina, kasu gehienetan, aldi baterako soilik izaten da), eta hesteetako buxadura.
- Maskuriko edo ureterreko lesioak.
- Odoljariora. Batzuetan, odol-transfusioak eta/edo berriz ebakuntza egitea beharrezkoa da.
- Sexu-disfuntzioak. Inpotentzia eragin dezakete.
- Gaixotasuna berriro agertzea.

Ebakuntzaren ondoren, ebakuntza orotan ohikoak diren konplikazioak gerta daitezke; esaterako: bihotz-biriketako arazoak, tronbosia, gernuaren edo zainetako kateterren infekzioak eta pazienteak lehendik zuen gaixotasunen deskompentsazioa (arnasketarena, diabetearena, bihotzekoarena...). Konplikazio horiek, eskuarki, tratamendu mediko bidez sendatzen dira (sendagaien, serumen eta bestelakoen bidez); baina, zenbaitetan, ebakuntza horiek berriz egin beharko dira -presazko ebakuntzak izaten dira normalean-. Horrelakoetan, heriotza gertatzeko arriskua oso txikia da.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Medikuek azaldu dit nire kasuan ez dagoela beste tratamendu eraginkorragorik.

G.- OHARRAK:

.....
.....
.....

Poco frecuentes y graves:

- Apertura de la herida quirúrgica; infección intraabdominal; fístula intestinal por fallo en la cicatrización de la sutura que, a veces, precisa reintervención con la realización de un ano contranatura que, en la mayoría de los casos es provisional, obstrucción intestinal.
- Lesiones de la vejiga o de los uréteres.
- Hemorragia que puede precisar transfusiones y/o reintervención.
- Disfunciones sexuales que pueden producir impotencia.
- Reproducción de la enfermedad

Después de la cirugía puede aparecer cualquiera de las complicaciones propias de cada cirugía: problemas cardiopulmonares, trombosis, infecciones de orina o de los catéteres venosos, descompensaciones de enfermedades previas (respiratorias, diabetes, cardíacas, etc.).

Estas complicaciones habitualmente se resuelven con tratamiento médico (medicamentos, sueros, etc.), pero pueden llegar a requerir una reintervención, generalmente de urgencia, incluyendo un bajo riesgo de mortalidad.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.-RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F. ALTERNATIVAS:

El médico me ha explicado que en mi caso no existe otra alternativa más eficaz de tratamiento.

G.- OBSERVACIONES:

.....
.....
.....

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente
Pazientearen izen-abizenak

Nombre, dos apellidos

Sinadura eta data

Firma y fecha

Medikua/El/La Médico
Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad
Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal
Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha